

# 7.000 tona antxoa harrapatu ahal izango dituzte martxotik aurrera

Europako Batasuneko Arrantza ministroek bertan behera utzi dute lau urte eta erdi iraun duen debekua

Aztiren datu onek eta Frantziak ere presio egiteak eragin dute erabakian

**Jakes Goikoetxea** Donostia

Europako Batasuneko Arrantza ministroek amore eman dute: lau urte eta erdiko debekuaren ostean, 2010eko lehen erdian Bizkaiko Golkoan antxoa arrantzatzea baimendu zuten atzo. 7.000 tonako kuota mugatua izango da, martxotik aurrera. Berez, arrantzalek lortutako akordioaren arabera, %80 Bizkaiko, Gipuzkoako, Galiziako, Asturiasko (Espainia) eta Kantabriako (Espainia) arrantzaleei dagozkie; %20, berriz, Lapurdikoei eta Frantziakoei. Kantauriko arrantzaleek Lapurdikoei eta Frantziakoei lehen zegoen baino %10 eta ehun tona gehiago eman dizkiete, antxoaren arrantza baimentzearen alde egitearen truke. Baina lerro hauek idazteko orduan Bizkaiko eta Gipuzkoako arrantzaleen arduradunek ez zekiten ea azken akordioan banaketa hori errespetatu zen edo ez.

Bizkaiko eta Gipuzkoako arrantzaleentzat funtsezkoa zen antxoaren arrantza urteko lehen erdian baimentzea, apiriletik ekainera arrantzatzen baitute antxoa. Urteko bigarren erdian hegala eta hegalaburra harrapatzen dituzte. Beraz, ministroek 2010eko lehen erdian debekuari eustea erabaki izan balute, arrantzaleek 2011 arte itxaron behar zuten antxoa arrantzatzen hasteko. Bigarren erdian arrantza baimendu edo ez erabakitzeak, ohi bezala, udaberriaren egingo dituzte antxoaren biomasaren egoerari buruzko neurketak.

Europako Batasuneko Arrantza ministroek gaur amaituko dute hiru eguneko bilera, Bruselan, espezie bakoitzaren arrantza kuota negoziatzeko. Negoziazio korapilotsua izan ohi da, espezie bati buruzko hitzarmenak beste batean baldintza baitezake.

Europako Batzordeak 2010eko lehen erdian antxoaren arrantza debekuari eusteko gomendatu zien ministroei. Baina Aztik udazkenean egindako neurketetan oinarrituta, arrantzaleek, Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak arrantza baimentzearen alde egin dute. Arrantzaleek 7.000 tonako gutxienezko kuota eskatu zuten, beren esanetan hortik be-

herako kopuruak arrantzatzea ez baita errentagarria.

Frantziako Gobernuak ere bat egin du. Berez, Lapurdiko eta Frantziako arrantzaleentzat ez da hain garrantzitsua antxoaren arrantza urteko lehen erdian baimentzea, bigarren erdian arrantzatzen baitute batez ere.

Ministroek hartutako erabakia politikoa izan da, baina oinarri zientifikoa du. Aztik 177.885 tona antxoakume zenbatu ditu udazkenean egin ohi duen Juvena neurketan, 2003an egiten hasi zenetik kopururik handiena. Aurretik 2005ean zenbatu zuen antxoakume gehien: 134.131 tona. Aurtengo kopurua ordukoa baino %33 handiagoa da. Gehiago, handiagoak eta eremu zabalagoan.

## Aurreikuspen onak

Antxoaren hilkortasun tasa oso handia da: arrautzen %99,999 hil egiten dira eta antxoakumeen — urtebeteko antxoa — %20-30 bakanrik iristen dira udaberriaren heldu izatera. Dena den, aurreko urteetan antxoaren populazioak udazkenetik udaberrira izan duen bilakaera ikusita, Aztik uste du 2010eko udaberriaren antxoa kopuruak gainditu egingo duela ezarritako zuhurtziak muga, 33.000 tonako biomasarena.

Baina Aztiren neurketaren emaitzak ez dira lotesleak Europaan. Antxoaren arrantza ICES da erreferentzia, Itsasoa Aztertze-ko Nazioarteko Kontseilua. ICESek udaberriaren egingo du antxoa kopuruaren kalkulua, eta kalkulua horretan oinarritzen du urte guztirako gomendioa.

Aztik eta Bizkaiko eta Gipuzkoako baxurako arrantzaleek nabarmendu dute funtsezkoa dela udazkenean antxoaren belaualdia berriak neurtzea, horrek baldintzatuko baitu hurrengo urteko udaberriaren izango den antxoa helduen kopurua.

Antxoa arrantzatzeak debekua baxurako arrantzaleen azken urteetako jardueran baldintzatzen du, antxoa diru iturri garrantzitsua baitzen berentzat. Berdelaren arrantzak ez du berdindu antxoaren hutsunea, eta egoera larritu egin dute hegala eta hegalabur arrantza eskasek.



Antxoa lehorreraten Ondarroako portuan, artxiboko irudi batean. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

**Eugenio Elduaen** • Gipuzkoako Kofradien Federazioko presidentea

## «Ikasi egin behar dugu, berriro ez gertatzeko»

**J. Goikoetxea** Donostia

Eugenio Elduaen Gipuzkoako Kofradien Federazioko presidentea eta Iñaki Zabaleta Bizkaiko herenegundik daude Bruselan. Egun eta ordu luze eta korapilotsuak pasa dituzte. Itxaronaldiak merezi izan du.

### Zein da erabakiari buruzko lehen iritzia?

Albiste ona da, pozik gaude. Hori eskatu dugu eta lortu dugu. Baina hau ez da aparteko zerbaitez balitz bezala hartu behar, normalizaziorako urrats gisa baizik, sektore osoarentzat: arrantzaleentzat, komertzializatzaileentzat, kostaldearentzat... Ez da garaipen bat.

### Zer garrantzi du baxurako arrantza-leentzat?

Hasiera bat da. Ia bost urteko debekua eragindako kaltea ez da urte batean konponduko. Kostako eta pixkana-pixkana egingo dugu aurrera.

### Zer gertatu da Europako ministroek Europako Batzordearen debeku gomendia aintzat ez hartzeko? Aztiren emaitza onak? Frantziako Gobernuaren presioa?

Guztia izan da garrantzitsua. Guk orain artean ez dugu hain gogor eskatu antxoaren arrantza baimentzeko, geronek ere ez bai-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

kenuen antxoarik ikusten itsasoa kuota bat eskatzeko. Baina aurrean antxoa asko ikusi dugu eta Aztik datuekin baieztatu du guk ikusitakoa. Horregatik egin dugu kuota mugatu baten eskaera, bestela ez genuke eskaera egingo.

### Nolakoa izango da kuotaren banaketa? %80 zuentzat eta Espainiak arrantzaleentzat eta %20 Lapurdikoentzat eta Frantziakoentzat?

Oraindik ez dakigu, ez dugu agiri-rik ikusi. Guk banaketa hori hitzartu genuen, baina ez dakigu errespetatu den edo ez. Zurrumurruek badaude, baina zurrumurruek zurrumurruek dira. Berez, Frantziako Gobernuak esan du

sektoreak eskatutakoarekin konformatuko zela, baina ez dakigu azkenean zer sinatu duten.

### Zenbat dagokizue Bizkaiko eta Gipuzkoako arrantzaleei?

%80 hori ez da banatzen probintziak. Elkarrekin hitz egin eta eguneko edo asteko gehieneko kopuruak ezarri beharko ditugu. Ontzi kopuruagatik, Bizkaian eta Gipuzkoan dago antxoa harrapatzen duten itsasontzi gehien.

### Udazkenean antxoakumeak zenbatzea oso garrantzitsua dela nabarmendu izan duzue. Aztik egiten du. Noizko egingo du ICESek?

Egin beharko luke, udazkenean neurketa funtsezkoa baita udaberriko arrantzari begira.

### Zein izan da lau urte eta erdi hauetan ikasi duzen ikasgaia?

Itsasoa agortzen ari dela. Duela urte asko pentsatzen genuen antxoa beti egongo zela hor, baina hainbat faktoreren ondorioz behera egin du. Ikasi egin behar dugu, berriro horrelako egoera batera ez iristeko. Kudeaketa plan bat lortu dugu eta hori gauza handia da. Alegia, jada ez duela balio politikariek paper batean kopuruak jartzea, biomasaren datuetan oinarrituta arrantza arduratsua egin behar dela baizik. Irakaspen handia izan da guztiontzat.